



ALEA

arabako aldizkaria

Izan zaitez ALEAkide

www.alea.eus/aleakideak



ARABA EUSKARAZ

**IKASTOLEN JAIAN
MURGILTZEKO 'GERTU'**

Hirian, txakurra beti lotuta

ZURE TXAKURRA, ZURE ARDURA

Txakurrak aske ibiltzeko
eremuak bilatu



www.vitoria-gasteiz.org





ALEA 197

2019-06-14 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ARMENTIA IKASTOLA

Aurkibidea

- 4 Gasteiztarrengana ikastola gerturatzeko erronka dute aurretik antolatzaileek.
- 8 Armentia ikastolaren historia.
- 12 Liher Larrea: "Bide berri bati ekiteko lehen pausoa izango da aurtengo jaialdia".
- 16 Iritzia: Oier Azkarraga.
- 18 Antton Aranburuk jarri dio letra aurtengo kantari.
- 20 Jaialdian ere ingurumena zaintzeko konpromisoa dute.
- 22 Arabako Bertsozale Elkartearen omenduko dute.
- 23 Larrialdi egoera baten aurrean nola jokatu ikasteko aukera izango dute umeek.
- 25 Eskulanak.
- 27 Gure Bazterrak: Armentia.
- 30 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 5.000 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Oier Azkarraga.

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Ikastolaren ateak zabaltzeko erronka

Igandeko festa gasteiztarrengana gerturatzeko baliatu nahi du Armentia ikastolak eta irakaskuntza eredu inklusiboagoa sustatzeko erronkari eusteko. Zirkuitua, kilometro gutxikoa, lau zonaldetan banatuko da: Prado parkean, Mineral inguruetan, Armentia Ikastolan eta Armentia zelaian.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkate**. Argazkiak: **Armentia ikastola**.

Hamazepi talde eta 150 lagun aritu dira hilabete hauetan lan eta lan Araba Euskaraz jaia aurrera ateratzeko. Armentia ikastolako lagunek parte hartu dute hirian egin diren bileretan, ikuskizunetan eta ekintza desberdinetan, eta dagoeneko prest dute igande honetako askotariko egitaraua. Ezohiko helburuarekin sustatu du Ikastolen Federazioak aurtengo Araba

Euskaraz: egunean zehar bilduko den dirua Armentia ikastolan beka sistema bat sortzeko erabiliko du, besteak beste. Laguntza sistema horri esker, ikastolako ateak zabalik egotea nahi dute Gasteizko familia guztientzat, "euren egoera ekonomikoa ez baita muga edo oztopo izango seme-alabak bertan matrikulatzeko". Ikastolak irakaskuntza eredu inklusiboago batera jo nahi du horrela arlo guztietan, azaldu dutenez.

Leloak eta aurtengo logoak adierazten duten bezala, *Gertu!* egon nahi dute, gasteiztarrengandik gertu: "Hori da gure helburua Araba Euskarazi begira, gertu egotea, eta hori izango da gure ikastolaren helburua etorkizunera begira ere. Hori adierazten du gure logoak".

Gasteizen zein Araban presente dauden munduko beste kulturak ere irudikatu nahi izan dituzte antolatzaileek, eta modu horretan aurtengo Araba Euskaraz erritmo berriaz hornitu dute, "Gasteizko zein Arabako gizarte eragileak eta biztanle guztiak gertu sentitu nahi ditugulako". Hala, New Orleanseko doinuak, jazz edota swinga nahasten ditu *Gertu!* abestiak. Abestiaren hitzak Antton Aranburu Gasteizko bakarlariarenak dira, eta musika Luko Royo taldearenak.



Azken hilabetean hainbat ekitaldi egin dituzte Araba Euskaraz jaiaren aurrekari moduan.

Swing doinuak ere izango dira nagusi Armentia zelaian zein Prado parkean igandean.

Auzolana oinarri izan duen Araba Euskaraz edizio berrian festa "parte-hartzailea eta dibertigarria" iragarri dute Armentia ikastolako lagunek. Izan ere, publikoaren inplikazioa eta parte-hartzea sustatu nahi izan dituzte egitarauan. "Festaren parte aktiboa izan daitezen nahi dugu, dantzatu eta abestu dezaten, eta horretarako oso eskaintza zabala prestatu dugu: swinga, dantza plaza, zumba, batukada... Aurten *Gertu!* da Araba Euskaraz leloa, eta horixe gorpuztu nahi dugu, guztiok elkarrengandik gertu egon gaitezen, hiriko zenbait talde eta kolektiboren parte-hartzearekin. Adibidez, Gasteiz Kantuz eta Afanis-Ras izango dira gure alboan, betiere euskara egunerokotasunera hurbiltzeko eta haren erabilera ohikoa izan dadin sustatzeko".

Kilometro gutxi, lau gune

Kilometro gutxiko ibilbidea izango dela azaldu dute, denentzat egingarria, eta aurreko edizioetan ez bezala, guneak ez dira adinaren arabera banatuta egongo. Bakoitzean publiko mota (haurrak, gazteak, nagusiak) kontuan hartuko den arren, programazioa askotarikoa izango da eta adin guztientzako jarduerak eskainiko dituzte. "Mugimendua egon dadin nahi dugu, jendeak zirkuitu osoa egin dezan eta ez dadin area zehatz batean geratu pentsatuz gainerakoetan ez duela bere gustuko ezer aurkituko", azaldu dute Armentia zelaian zein Prado parkean igandean.





IBILBIDEAN ZEHAR

ARTISAUAK / PUZGARRIAK / KALE-ANIMAZIOA

ZINDARRIK ELEKTROTARANGA / KITTU TXARANGA / MUNDUKO MUSIKAK

OTZU TONTOIAREN SIKALORRI BEL TARRAK - ETA NEAN

Esaterako, Armentia ikastolan Haurren Hiria egongo da, eta bertan txikientzako tailer asko antolatuko dituzte. Ikastolan bertan Imanol Ituiño magoak truko harrigarriak egingo ditu, bertsolariak hitzekin jolastuko dute eta herri bazkaria ospatuko dute. Dena den, Ikastola ez da umeentzako leku bakarra izango; jolas eta jarduera gehiago aurkituko dituzte Prado parkean, Mineralen eta Armentia zelaian. Hala, Prado parkean Potx eta Lotx pailazoak izango dira protagonistak, baina ez dira bakarrik egongo, Kittu txarangako kideak ere bertan arituko direlako. Eta lehen aldiz Arabako ikastolen jaietan, Osakidetzak lehen sorospenei buruzko bi lantegi antolatuko ditu zortzi urteko umeentzat.

Musika

Musikari dagokionez, Joselu Anaiak, Skabidean eta Ze esate! taldeak ariko dira, besteak beste, eta nazioarteko doinuez gozatzeko aukera ere izango da: Kolonia, Bolivia eta Sahara, zehazki, Armentia zelaian. Jaiaren amaiera ere musikarekin ospatuko dute, Prado parkean, eta Oxabi erromeria taldeak lagundurik.

Halaber, egun osoan zehar bestelako ekintzak prestatu dituzte. Hala, Gauekoak udal programak lau jarduera ezberdin antolatuko ditu Mineral inguruan –beste sei egingo ditu gainerako zonaldeetan– eta Arabako artisauek euren produktuak aurkeztuko dituzte. Berrikuntzen artean, "gastrotonbola" egingo dute, eta Arzak eta Matxete jatetxeetan bazkariak zozkatuko dituzte, baita asteburuko egonaldiak eta Eusko Label produktuak ere. ■■■

Ba al zenekien ARABA EUSKARAZ
JAI EKO-JASANGARRIA dela ?

Jaietan landatutako bakoitzak
10.000 isuritako CO2 zurgatzen du

Elikatu fabrikatzen dugun
Ongarri Organiko arekin

Herri bazkariako organikoak birziklatuz

Natura zaintzea zure esku dago

Eskatu **ongarri organiko ekologikoa** :
688 917 576
ekaia@ekaiaeko-gestion.com
www.ekaiaeko-gestion.com

EKAIA
eko-gestion

Saldarik
adaukazue?

KAIKO

Zer moduz?

Goazen!

Barkatu,
zer ordu da?

ngoia
da
dez?

Kafesnea,
mesedez...

Maialen naiz


ESAN?

Egun a

Etorriko
haiz?

lehen hitza...
euskaraz

Mesedez,
laguntzarik
bai?



Kostata bada ere, 25 urte bete dituen haziak ernetzea lortu du

1992/93 ikasturtean hasi ziren Armentian ikastolan eskolak ematen, Jaurlaritzaren baimenik gabe eta hezkuntza ereduaren inguruan Gasteizen zegoen eztabaidaren erdian. Baina, oztopo guztien gainetik, proiektuak aurrera egin zuen, eta gaur egun, 1.200 ikasle baino gehiagok ikasten dute bertan.

Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Armentia ikastola**.

Hainbat hilabetez Arabako zein Euskal Herri osoko zenbait gizarte eragile elkarlanean aritu ostean, Oblaten komentuan izandakoan eman zion hasiera 1992/93 ikasturtean guraso eta irakasle talde txiki batek Armentia ikastolari. Bestelako ikastoletan gertatu zen bezala, hasierako urteak ez ziren errazak izan, Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak jarduera garatzeko administrazio baimenik eman ez zuelako, eta, garai hartan, hirian hezkuntza ereduari buruzko eztabaida sakona zegoelako. Baina horri aurre eginez hasi ziren komentu zaharrean eskolak ematen.

Egitasmoak Arabako Ikastolen Elkartearen oniritzia jaso zuen hasieratik, eta lehen urte horietan Euskal Herriko ikastolen taldeak hartu zuen Gasteizko ikastola berriaren proiektuaren zama handiena.



Baina, denbora aurrera joan ahala, aurrerapausoak ematen hasi zen taldea. Hala, 1993ko ekainean, Armentia Ikastola kooperatiba integrala sortu zuten bertako ikasleen familiek eta lanean zeuden irakasleek eta langileek; horrek esan nahi du esandako kideek partekatzen dutela ikastolaren jabetasuna. Dena dela, aldaketa juridiko honekin ezin izan zen legez aurrera egin 1995 urtean Hezkuntza sail berriak ikastolaren titulartasunaren aldaketa guztiz onartu zuen arte. Orduan, kooperatibaren eskuetan geratu zen ikastola.

Lehen baimenak

Aurretik, 1994 urte hasieran, nolabaiteko irtenbidea izan zuen Hezkuntza sailak emandako baimen mugatuarekin: hain justu ere, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hiru talde aurreikusi zituen administrazioak. Horri esker hasi zen ikastola legearen barruan lan egiten, baina ez osotasunean; ordurako, baziren eta bertan bi eta hiru urteko haurren taldeak, eta baita Gasteizko beste ikastetxe batzuetatik iritsitako garai hartako Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko (BBB) ikasleak ere. Gauzak horrela, 1994ko udan jarduerarako baimena zabaldu egin zuen Hezkuntza sailak: Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sei talde eta behin behinekoz BBB-n lau ikasgela sortzeko baimena eman zuen.

Hasierarekin gertatu zen moduan, proiektua garatzea ere ez zen samurra izan. Izan ere, Batxilerretarako ibilbidearen aurrean ez zen

Oblaten komentua izandakoan jarri zuten martxan Armentia ikastola, orain dela 25 urte.





Gaur egun, ikastolak duen itxura; orain dela 25 urte eskolak ematen hasi ziren toki berean jarraitzen du proiektuak.

eta irtenbide argirik aurkitu eta beheko mailako ikasleria sendotzen zihoan bitartean, goi mailakoen jarraipena ezinezkoa izan zen. LOGSE sistema hedatuz joan zen neurrian, goiko mailak desagertzen joan ziren; eta behean, berriz, bi urtetatik hasita zetozen txikiekin Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza indartzen joan ziren. Guzti horrek ikastolaren barne egitura eta langileen jarduna egokitu behar izatea ekarri zuen.

Oinarriak sendo

Bestalde, hasieratik ikastolen taldean finkatuz joan ziren oinarri pedagogiko eta metodologikoak ezarri ziren Armentia ikastolan ere, eta gaur egun guztiz garatuta dituzte proiektuen oinarriak, hala nola, hezkuntzaren ikuspegi eraikitzailea, eleaniztasuna, Euskaraz Bizi, orientazioa

edota elkarbizitza. Oztopo guztien gainera, 2005/06 ikasturteetik hasita, kalean dira Armentia ikastolan goitik behera eskolaturiko ikasleen promozioak. Gaur egun, 1.200 ikaslelik gora ditu ikastolak.

Euskara da ikastolaren oinarri nagusienetarikoa, eta hortaz, baita Araba Euskaraz ere. 1981 urtean ospatu zuen, lehendabiziko aldiz Araba Euskaraz, Gasteizen. Dagoeneko 13 urte igaro dira 2006. urtean Arabako ikastolen aldeko jaia egin zela azkenekoz Armentian, *Barruan daramagu* lelopean. Gogotsu daude, eta hori dela eta, jaialdia igandean, ekainaren 16an, izango bada ere, horren gaineko kultura egitaraua ikasturte osora zabaldu dute; hain zuzen ere, azarotik ekainera bitartean.

Halaber, zilarrezko ezteiak bete dituzten ikasturte honetan, jaialdiarekin "proiektua sendotzera, zabalzera, ikastola gerturatzerara" datozela iragarri dute antolatzaileek. ■■■

Dulantzin ere,
nahi baduzu euskaraz

Alegria-Dulantzi

Ayuntamiento ALEGRIA-DULANTZIKO Udala

APP ((112)) SOS Deiak

Araba Euskaraz egunean ere



Larrialdi
guztietarako

Eskura ezazu



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

"Bide berri bati ekiteko lehen pausoa izango da aurtengo jaialdia"

LIHER LARREA ARMENTIA IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

Gasteiztarrengandik "gertuago" egoteko helburuarekin, etapa berri bat hasi nahi du Armentia ikastolak; proiektua egonkortuta, beste bide batzuk jorratu nahi dituztela azaldu du Liher Larreak; bide horretan, mugarri izan daiteke igandean ospatuko den Araba Euskaraz.

Testua: **E. Lanao/ A. Amenabar.** Argazkia: **E. Lanao.**

Azkeneko urteetan Armentia ikastola "barrura begira" izan dela aitortu du Liher Larrea ikastolako lehendakariak, eta norabide berria hasteko mugarria izan daiteke 2019ko Araba Euskaraz. Gasteiz eta Arabatik "gertuago" izateko helburuarekin hasiko dute ibilaldi berria, ALEA FM saioan gogoratu duen moduan. Horri bultzada emateko, prest dituzte igandean Arabako ikastolen jai handia hartuko dituzten lau guneak.

'Gertu' izango da aurtengo leloa. Zergatik?

Hainbat arrazoigatik. Alde batetik, hurbiltasuna adierazten du "gertu" hitzak, eta ikastola gasteiztarrengandik eta arabarrengandik gertu ikusi nahi dugu, edo behintzat hori da helburua datozen urteetarako. Aurtengo Araba Euskaraz hau bide horri ekiteko lehen pausoa izatea nahi dugu. Azkeneko urteetan Armentia bere hazte horretan murgilduta egon da, eta askotan ez dugu indarrrik edo baliabiderik izan Gasteizera zabaltzeko, eta uste dugu beharrezkoa dela. Bestetik, "gertu" hitzak ere prest gaudela irudikatzen du. Gertu gaude pauso horretarako; gure proiektua sendotu da, eta orain beste

norabide batzuk hartu behar ditugu hori indartzeko. Hazia erein zen, eta 25 urte eta gero fruitua jasotzen ari gara orain; zabaltzea da erronka aurrerantzean.

Aurten jasotako dirua beka sistema bat eskaintzeko izango da, ezta?

Hori izango da lehentasuna. Beka sistema bat sortu nahi dugu ordaintzeko arazoak dituzten lagunei Armentiarara etortzeko aukera emateko; batik bat, jatorri atzerritarreko familiekin sortzen den muga hori erraztea da helburua. Bestetik, biltzen den diruaren arabera, proiektu pedagogikoa indartzeko eta kirol azpiegiturak hobetzeko ere erabiliko da.

Eskolen arteko "polarizazioa" areagotu dela nabarmendu du aste honetan Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak. Guraso atzerritar bat duten ikasle gehienak sare publikoan daude.

Bai, aspalditik datorren arazo bat da. Guk geuk eta eta Ikastolen Elkartek ere argi utzi dugu ez dela zuzenean gure arazoa, atzetik datorren kudeaketa baten araberakoa baizik. Baina bai, gurera jatorri atzerritarreko lagun gutxi iristen dira; aipatu dugun arazoi ekonomikoa izan daiteke arazoi nagusia, eta hizkuntza bera ere arazoia izan daiteke, D



eredura beharrean beste eredu batzuetara errazago jotzen dute normalean gazteleraz dakiten etorkinek, euskara oztopo moduan ikusten dute.

Egoera hori aldatzeko, zer pauso eman daiteke?

Erakundeak eta hezkuntza arloan lan egiten dugun denok elkartu eta hausnarketa sakon bat egin behar genuke hori bideratu ahal izateko. Arrazoi ekonomikoa da nagusi, eta beharbada laguntzak eman behar dira hori bideratzeko. Armentia ikastolan bertan argi daukagu gure eskoletan dagoena ez dela errealitatearen isla.

Euskara ere erronken artean aipatu dituzue. Euskara "zabaltzeko" deia.

Euskaraz kanpoko inguru horretan murgiltzeko eta euskara bultzatzeko zer estrategia bultzatu daitekeen aztertu behar dugu, eta hori beste erakundeekin landu nahiko genuke. Hezkuntza ez da bakarrik eskola, hortik kanpora ere euskalduntzen garelako; Gasteizen ez da erraza, eta lan handia dago.

Zein da euskararen osasuna Armentian?

Ahaleginak egin arren, gure zailtasunak ditugu. Familia euskaldunetan nahiko erraza da, baina bikotekide bat erdalduna bada nabaritu egiten da, eta gurasoetako asko biak dira erdaldunak,

eta hauetan kostatzen da. Euren artean erdaraz hitz egiteko ohitura hartzen dutenean, kosta egiten da euskararako pausoa ematea. Ikastola bera ere handitu da, 1.200 ikasle daude egun, ez du zerikusirik hasietako talde txikiarekin, eta hori ere igartzen da eguneroko dinamiketan.

Jolastokietan entzuten da euskara?

Egia esaten badizut, gutxi. Horretarako hainbat proiektuarekin gabiltza ikastolan bertan.

Euskaralagun proiektuarekin, esaterako; adin desberdinetako ikasgelak elkartzen dira, euren artean euskaraz egiteko ohitura sortu dadin. Atsedendietan ere euskaraz egin dezaten da helburua. Ikasgelan bertan lantzen dute, eta nahiko finkatuta dute euskara dela erabili beharreko hizkuntza, baina gero kanpotik dakarten erdaraz egiteko joera aldatzea kosta egiten da.

Igandean hitzordu nagusia duzue: Araba Euskaraz. Ikastolak badu esperientzia halako jaiak antolatzen, ezta?

Bai. Hamahiru urte pasa dira azkeneko jaiak antolatu genuenetik, baina duela bi urte Oionek antolatutakoan ere parte hartu genuen eta besteetan laguntzaile izan gara.

Inplikazio handia behar da ikastolako kide guztien aldetik halako jai bat antolatzeko?

Inplikazioa behar da, eta alde guztietakoa gainera. Urte osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu ditugu, gainera, ekainaren 16an izango den jaira bidean; zuhaitz landaketak izan dira, antzerki eta ikuskizunak, dastaketak, lehiaketak... Igandeari begira, azken astea izanik, dena ondo atera dadin azkeneko esfortzua egiten ari gara.

Arabako Bertsozale Elkarteak omendu nahi duzue aurten.

Armentia ikastolak beti izan du Arabako Bertsozale Elkartearekin harreman estua, eta erabaki genuen omenaldia egin behar geniela. Ikasle ohien artean bertsolariak daude; aspaldian ezaguna egin den Aroa Arrizubieta, adibidez, Eskolartekoa irabazi zuen Arrizubietak eta gaur egun bera da Bertxilika Armentia ikastolako bertso eskolako irakaslea. ABerekin beti landu izan du harremana Ikastolen Elkarteak eta Armentiak ere bereziki, eta horregatik omenaldia egingo diegu igande honetan, Araban bertan ere

"HAZIA EREIN ZEN, FRUITUA EMAN DU ETA ZABALTZEA DA ORAIN ERRONKA NAGUSIA"

"ARMENTIAN ARGI DAUKAGU GURE ESKOLETAN DAGOENA EZ DELA ERREALITATEAREN ISLA"

oso lotuta egon direlako bertsolaritza eta euskalzaletasuna. Egin duten lanagatik gure keinua eurei, eta lan horretan jarraitzeko "gertu" gaudela adierazteko.

Lau gune prestatu dituzue iganderako.

Hasieratik argi ikusi genuen ikastolari berari garrantzia eman behar geniola, eta hori izango da guneetako bat. Prado parkea, Mineral ingurua eta Armentia zelaia izango dira beste txoko nagusiak. 10:00etan emango diogu hasiera jaiari, ekitaldi batekin, han irekiko dizkiogu ateak ibilbideari.

Zein da galdu behar ez dugun ekitaldia?

Gustu guztierako ekitaldiak daude. Goizean zehar ikasleei begirako Erronkak izango dira hainbat guneetan, eta hortik aurrera norberaren intereseko gauzak bilatu daitezke; elektrotzaranga ibiliko da ibilbidean zehar, herri bazkaria egingo da ikastolan bertan, haurrentzako txoko bat izango da... Guneetan hainbat jarduera nahasten saiatu gara perfil bakarreko laguntzat ez izateko, eta adin desberdineko laguntzako ekitaldiak izateko gune guztietan. Besteak beste, Big Band Berri jazz taldea, Potx eta Lotx pailazoak, Joselu Anaiak, dantza plaza, Ze Esatek!, Imaño Ituño magoa, Olatz Pagaldaireren bakarriketa, munduko musiken saioa edota eskulangileen azoka deskubritu ahal izango dira ibilbidean zehar.

Iganderako dena prestatzeko, azken esfortzurako laguntzarik beharko duzue?

Laguntza ez da sekula sobera egoten, eta, noski, inork lagundu nahi badu ateak zabalik ditu horretarako. Denen parte-hartzea ezinbestekoa izango da. ■■■





#izena emango dut

GAZTEEN ITZULERARAKO PROGRAMA

Euskadira itzuli nahi duten pertsonak kontratatzeko laguntzak.



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGAKO ETA GAZTE
POLITIKAREN SAIA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



EUROPAR BATASUNA
UNIÓN EUROPEA
Europako Giza Funtza
Fondo Social Europeo

945 160 600 / 630 305 452

| www.lanbide.euskadi.eus



Euskararen herria



OIER AZKARRAGA

EUSKARALDIA GASTEIZKO DINAMIZATZAILEA

Euskararen aldeko ekimenak ugariak dira gure herrian. Gasteizen bertan, hiru ekimen erraldoiren partaide izateko aukera izan dugu amaitzen ari den ikasturte honetan: Euskaraldia burutu genuen milaka euskaldunok iazko azaro abendu bitarte, Korrikaren amaiera gurean egokitu zitzaigun apirilean, eta orain Araban Euskaraz jaia dugu gure kaleetan barrena.

Errealitate ezberdinei erantzuten die ekimen hauetako bakoitzak, baina denak norabide komunean egiten dute ekarpena: Gasteiz, Araba eta Euskal Herri euskaldun bat dute helburu, eta, bide horretan, euskal komunitatearen babesa behar dute guztiek.

Ekimen hauek herri bizi baten adierazle dira, ehunka pertsona, elkarrekin, euskararen herria eraikitzen ari garen adierazle, hain zuzen ere. Ez da lan makala ehunka boluntariok egiten dutena, eta lan horren balioa nabarmentzea ezinbestekoa da. Hilabeteetako lana da halako ekimen bat aurrera eramatea, emaitzak ikusiko baditugu.

Euskaraldiari dagokionez, 2018ko amaieran ikusi genituen aurreko hilabeteetan ehunka kidek antolatutako auzolan erraldoiak eman zituen emaitzak, gure kaleak Ahobizi eta Belarriprest-ez bete ziren, eta euskaraz bizitzeko genituen zailtasunak —zailtasun batzuk gutxienez—, borondate irmoarekin gainditu daitezkeela erakutsi.

Herritarren borondate hutsa, ordea, ez da nahikoa. Aurrera urrats garrantzitsuak emateko baliogarria da, baina gure erakundeen, herri eragileen edota enpresen bultzadarik gabe, Euskaraldia hankamotz gelditzen zaigu.

Horri erantzutera dator 2019-2020 bitarte burutu nahi dugun ekimen berria. Oraingoan, herritarren aktibazioaz eta ahalduntzeaz gain, entitateen babesa eta aurrera urratsak biderkatzeko hautua egina dugu.

Euskaraldia ekimena 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra burutuko bada ere, aurrelanak luze joango dira, eta ordurako prest egoteko lan zabal, sakon, bezain inportante eta zirrargarria dugu aurretik. Horretarako, orain arte bezala, euskaldun antolatuen beharra dugu. Lehenengo hitzordua aste honetan bertan dugu: ekainaren 19an, asteazkenarekin, Oihaneder Euskararen Etxean elkartuko gara, auzoz auzo eta herriz herri Euskaraldiaren ariketa berri honi aurre egiteko. Gonbidatuta zaude! ■■■

**ERAKUNDEEN, HERRI
ERAGILEEN EDOTA
ENPRESEN BULTZADA
GABE, EUSKARALDIA
HANKAMOTZ LEGOKE**

ASEGURATU ZURE INGURUNEA

AUTO EDO ETXE ASEGURUAREN
AURREKONTUA EGITEAGATIK BESTERIK GABE

KIA SOUL AUTO ELEKTRIKO BAT IRABAZ DEZAKEZU

ETA 2 URTEKO
ASEGURUA DOAN



**GAINERA, ZURE AUTO ETA ETXE ASEGURUAK
KONTRATATZEN BADITUZU**

100€ OPARI



50€ OPARI

auto poliza bakoitzeko.



20€ OPARI

etxe poliza bakoitzeko.

2019ko uztailaren 31era arte soilik



LABORAL
kutxa

BANKA ETA ASEGURUAK

Bada beste modu bat

Elkarretzak auto eta etxe aseguruaren kontratazio berritarako bali du, berraro konpainiaren baldintzak betezen badituzte eta 2019ko otsailaren 15etik uztailaren 31era bitartean egiten badira efektu-data: 2019ko abenduaren 31.
50 € itzuliko dira auto polizako eta 20 € etxe polizako; eta auto poliza bat eta etxe poliza bat kontratatuz gero, 100 €. Karpenaren muga: 2.000 auto poliza, 1.000 etxe poliza eta 300 auto eta etxe poliza bateratu.

2019ko otsailaren 15etik uztailaren 31ra bitartean auto edo etxe aseguru baten aurrekontua egiten duen bezeroak auto elektriko baten eta 2 urteko doako aseguruaren zozketan sartuko dira. Zozketa-eguna: 2019ko irailaren 20a. Kontsultatu zozketaren oinarriak zure ohiko baldagori edo www.laboralkutxa.com webgunean.

Kontsultatu baldintzak www.laboralkutxa.com webgunean edo LABORAL Kutxaren bulegoetan. Aseguru hau enbarkatzen duen Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Beretan inbentarioa dago, CN-0072 libearekin. Elkarretzakuzuzibila eta finantza-italimena estaltzailea, indarrean dagoen legearen arabera. Anonimoen aseguratzaileak: Seguros Lagan Aro SA. Kontsultatu aseguratzaileak haren www.laboralkutxa.com/web/guest/kutxa/aseguruak.

Etapari berriari, jazz erritmoz

Antton Aranburuk sortu du aurtengo ikastolen jairako kantaren hitza; bien bitartean, esku artean hirugarren lana du musikari gasteiztarrek, udazkenetik aurrera zuzenean aurkeztuko duena.

ANAKOZ AMENABAR

Ohiko musika doinuetatik aldentuta, jazz eta swing erritmoekin dator Araba Euskaraz. Steamboat Jazz Banden eskutik, Antton Aranburu musikariak jarri dio hitza. Egunero egiten du Armentia ikastolarako bidea, alabarekin batera, eta halako batean otu zitzaion aurtengo ikastolen jairako ideia: "Bidai horietako batean ikastolan eskegita dagoen *Gertu* kartela ikusi eta hainbat ideia etorri zitzaizkidan burura; auzoa eta hiria koloreztatzen duen itsasargia...". Segituan idazten jarri eta laster izan zuen prest aurtengo jaia gidatuko duen abestia.

Musika, ordea, Luko musikariak jarri dio. Beste estilo batzuk jorrazteko asmoarekin, harengana jo zuten antolatzaileek, Aranbururen hitzak dantzan jartzeko. "Jazzarekin ez dut hainbeste harreman, eta baneuzkan nire zalantzak proposamena egin zutenean, umeentzako kantagarria izango ote zen abestia; eta harrigarria izan da



Hogei kanta eta ipuin dituen lana aurkeztu du Antton Aranburuk. KALEZ KALE

emaitza, umeek oso ondo hartu dute", azaldu du Aranburuk.

Araba Euskaraz abestirako tartea egin badu ere, *Kaos#Kosmos* hirugarren lanarekin buru-belarri izan da azken hilabeteetan, eta hori aurkezten ibiliko da udazkenetik aurrera. Bi diskotan banatu du lana; *Zabal Dadila Kaosa!* eta *Sor Bedi*

Kosmosa!, hogei kantu eta abesti bakoitzaren osagarri gisa idatzi dituen hogei ipuinekin. Haren barnean sentitzen dituen "kaosa" eta "kosmosa" eraman ditu kanta berrietara, barne ezinegona agerian. "Bestalde, lasaitasunean, gauza txikietan topatzen ditudan erantzunak ere aurki daitezke letretan, nire kantetan ohikoak

artepan

diren paisaia eta argazki desberdinekin".

"Artisau eran" egindako prozesua geldoa izan da, zatika, puzzle baten antzera osatu duena. Patxadaz gozatzeko lana, Aranburuk berak gomendatu moduan: "Hau ez da egungo garaietako pildora azkar bat; patxadaz eseri, ipuina irakurri eta kanta lasai entzutekoa baizik". Egungo joeren kontrako bidea "nahita" hartu duela esan du, merkatuen norabidearen kontra. "Suizidio komertzial bat da, ez dauka inolako zentzurik merkatuaren ikuspegitik, baina pozik nago. Ez dut itzulkin ekonomikorik bilatzen, ezta ospea ere; bizi-bulkada baten ondorioz egin dut, azken aldian aldaketa ugari izan ditut bizitzan eta hori islatu nahi nuen lanean".

Lan berri honek ez du CD edo binilo itxurarik izango. Bisita txartel itxurako pendrive bat izango da euskarri bakarra, bi diskoak eta ipuinen bildumarekin. Interneteko plataforma ezberdinetan entzun daiteke lana, eta anttonaranburu.eus webgunearen bitartez ere debalde deskargatu daiteke. CD euskarrian edota ipuinak paperean ateratzeko aukera hasieratik baztertu du Aranburuk: "Nire ikasleen artean prospekzio txikiak egin ditut, eta inork ez du CD bat erosi azken bost urteetan; musika inoiz baino gehiago



Armentia ikastolako ikasleekin grabatu dute 'Gertu' aurtengo kanta. ARABA EUSKARAZ

UDAZKENEAN HASIKO DU ARANBURUK KAOS#KOSMOS LAN BERRIA AURKEZTEKO KONTZERTU BIRA

kontsumitzen da, baina ez euskarri horretan, CDa hilik dago, nostalgiko batzuk geratzen garen arren".

Hirugarren lana du esku artean Aranburuk, ibilbide luze baten ondorio. "Erabatekoa da aldaketa, musika zein letren aldetik; ikasketa prozesu baten moduan hartzen dut lana, eta, zalantzarik gabe, lan honetan badago eboluzio bat". Sei urte

igaro dira bere azken diskoa argitaratu zuenetik, nahiz eta musika lan oparoa egin duen bidean. Besteak beste, errealitate areagotuko *Kolore Anitzak* ikuskizunaren sorreran parte hartu du eta musika eskolak ere ematen ditu.

Hurrengo hilabeteetan atsedean hartu eta udazkenean hasiko da azkeneko lanaren aurkezpenarekin. Araian izango du lehengo emanaldia, irailaren 15ean. Maite Kareagarekin batera egingo ditu aurkezpenak, "kutsu literarioa" izango duten kontzertuekin. "Formatu intimoan egingo ditugu aurkezpenak, gitarra eta ahotsa bakarrik, espazio txikietan". ■■■

emun

EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | BILBO

www.emun.eus

Inoiz baino jasangarriagoa

Araba Euskaraz en ere ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu dute antolatzaileek, eta horretarako hainbat neurri zehatz martxan jarri dituzte. Kontsumoa, hondakinen kudeaketa eta hezkuntza hartu dituzte ardatz.

JUANMA GALLEGO

Jasangarria, garbia eta ingurumenarekin arduratsua. Halakoa nahi dute aurtengo Araba Euskaraz eguna, eta horretarako lanean egon da ikastolako Ingurumen Batzordea azken hilabeteotan. Horrelako egun batek ingurumen-inpaktu handia duela kontuan hartuta, eragin kaltegarri hori ahalik eta gehien gutxitu nahi izan dute. "Egun horretan jende asko hurbiltzen da, eta agerikoa da CO2 asko isurtzen dela, ibilgailu ugari biltzen direlako", azaldu du batzordeko kide Usua Santxok. Ez da pilaketek sortzen duten arazo bakarra. "Zabor asko sortzen da egun horretan, eta, askotan kontuan hartzen ez badugu ere, zarata ere sortzen da, eta hori ere kutsadura mota bat da".

Horri guztiari aurrea hartzeko lanean daude ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Ez da lehen aldia ikastolen jaietan halako proposamen bat egiten dena, baina agerikoa da aurten jasangarritasunaren aldeko konpromisoak indar berezia izango duela. "Duela urte



Umeekin zuhaitzak landatzen. ARMENTIA I.

batzuk hasi ginen pentsatzen jasangarritasuna arlo guztietan landu behar genuela", nabarmendu du Santxok. Hori dela eta, ez dira ingurumen batzordera mugatu: antolakuntza lanetan ari diren beste batzorde guztiak filosofia berdinarekin "busti" nahi izan dituzte. "Ez genuen nahi jasangarritasuna gure batzordeko erokeria hutsa izatea", azaldu du. Horregatik, diskurtsoetara mugatu ez eta praktikari begira ekimen ugari

martxan jarri dituzte Araba Euskaraz inoiz baino berdeagoa izan dadin. Adibide asko jarri ditu Santxok: "Festa bultzatzeko materiala lantzen duen taldekoekin aritu gara, plastikoa edo gehigarri asko duten materialak eros ez ditzaten".

Ur botila gutxiago

Aurrera joan den beste proposamena: txosnetan ur botilen kontsumoa mugatzea. "Botilatxoaren salmenta sustatu beharrean, jendea ibilbidean dauden iturrietara bideratu nahi dugu". Kartelei eta paperezko bestelako materialei dagokienez, horien kopurua mugatu nahi izan dute ere; kartelak egiteko material zurrunagoa aukeratu dute, behin jaia bukatuta horiek gorde eta hurrengo jaietan berriro erabili ahal izateko. Norabide berdinean, web eta app bidezko formatuak bultzatu dituzte, papera beharrean. "Paperezko materialak ere prestatu ditugu, jakinda trantsizio prozesu batean ari garela, guztiok errotuta ditugun hainbat ohitura aldatu arte", ohartarazi du Santxok. Hezkuntza prozesuan ere

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus

TTiPiA



Ingurumenarekiko ardura berezia duten ikasleek haien burua 'ekoikasletzat' daukate. ARMENTIA

eragin nahi izan dute: igandean bertan ingurumena lantzeko tailerra eskainiko diete haurrei, baina urtean zehar beste hainbat ekimen antolatu dituzte. Horietao bat Gasteizen egindako zuhaitz landaketa izan da. "Isuritako karbono dioxidoa konpentsatzeaz gain, familien artean naturarekiko lotura indartu nahi izan dugu".

Festan zehar eta ondoren gaikako zabor bilketa egingo dute, eta horretarako, besteak beste, talde berezi baten laguntza izango dute: DBHko *ekoikasleak*, ingurumenarekiko ardura berezia duen ikasle taldea.

Dena dela, gakoetako bat kontsumo ereduak aldatzea izango dela nabarmendu du Santxok, eta horri begira hausnarketa bat jarri du mahai gainean. "Araba Euskaraz bezalako ekimenetan jendeak normalean materiala erosten du diru-ekarpena egiteko, baina kontsumoan oinarritako eredu hori aldatzen asmatu behar dugu, bestelako bideak jorratuz". Ez da erronka makala. ■■■

Jasangarritasuna helburu:



Egin arduratsua eta kalitatezkoa den kontsumoa.

Inguruko pertsona nahiz eremuaren alde hobe beharrez izango da.



Zaindu ingurunea.

Ez ezazu zikindu, ezta kaltetu ere. Errespetatu ingurua, eta lagundu bertako natura eta ondare kulturala babesten.



Ibilbidean zehar dauden iturrietan edan.

Baina egizu urik alferrik galdu gabe: kontuan izan ura ondasun urria dela.



Bota hondakin guztiak edukiontzietara.

Ez bota ezer lurrera. Bota hondakin bakoitza dagokion edukiontzira, gaikako bilketa egin ahal izateko.



Giro osasuntsu eta segurua nahi dugu.

Erabil itzazu komun publikoak. Ez egin surik, eta ez bota zigarrokinik lurrera.



Leku lasaietan, ahal dela, ez egin zaratarik.

Zarata ere kutsadura dela kontuan izan. Bai ingurukoek zein landa eremuak eskertuko dizute.



Garraio garbia erabili.

Ahal baduzu, gerturatu Armentia oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabilia, aukerak egongo dira eta.



Edalontzi berrerabilgarria erabili.

Etxetik ekarri edo bertan hartu eta itzuli. Modu horretan zabor gutxiago sortzen da.

Egindako lana aitortzeko unea

Arabako Bertsozale Elkarteak omenduko dute igandean, azken urteetan egindako jarduna eskertzeko. Bertsozaleen eta ikastolaren artean dagoen "harreman berezia" nabarmendu du ikastolako presidentek.

JUANMA GALLEGO

Eskola orduetan eta eskola orduetatik kanpo. Bi modu horietan lantzen dute bertsojaritza Armentia ikastolan. Gaiarekiko ardura berezia dute bertan, eta, batez ere, harreman estua ABE Arabako Bertsozale Elkartearekin. "Horregatik erabaki genuen elkarte horrek egindako lana omendu behar genuela", azaldu du ALEA FM irratsaioan Armentia Ikastolako presidente Liher Larreak.

Bastidan eta Argantzonen izandako azkenengo jaietan ikastoletako ikasle ohiak omendu bazituzten ere, aurtengo hitzorduan

herrialdeko bertsozaleak biltzen dituen elkarteari omenaldia egitea erabaki dute, beraz.

Bertsolaritza Lehen Hezkuntzako ikasgaia da Armentian, *Gu ere bertsoan* programaren barruan, eta ABek kudeatzen du. DBHn, berriz, *Bertsoa Bizi Gazte* programa gidatzen du elkarteak, bertso-tailerra eta lehiaketa txiki batekin batera. Eskola

ARMENTIAREKIN EZ EZKIK, IKASTOLEN ELKARTEAREKIN HARREMAN ESTUA DUTE BERTSOZALEEK

orduetatik kanpo, berriz, Bertxilika izeneko bertso-eskola eskaintzen dute. Aroa Arrizubieta ikasle ohia da bertako irakaslea, 2017an Euskal Herriko Eskolartekoa irabazi zuen bertsolari ezaguna, hain zuzen. Armentiarekin ez ezik, ABek Ikastolen Elkartearekin ere harreman estua duela dio ikastolako presidentek. "Gainera, uste dut Araban bereziki lotura handia dagoela euskaldunen eta bertsojaritza artean", nabarmendu du. "Hau izan da, beraz, gure keinua orain arte egin duten lanagatik, eta lan horretan jarraitzeko gertu gaudela esateko modua ere bada". ■



Arabako Bertsozale Elkartek jasoko du omenaldia aurtengo Araba Euskaraz. ALEA.

Umeak ere sorosle igandean

Haurrei zuzendutako lehen sorospen tailerra eskainiko du lehen aldiz Osakidetzak ikastolen aldeko jaialdi batean; larrialdi egoera baten aurrean zelan jokatu behar duten ikasteko aukera izango dute umeek.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Araba Euskarazeko egitarauan badaude hainbat berrikuntza; tartean, Osakidetzak etxeko txikiengazko eskainiko duen lehen sorospen tailerra. Lehen aldia da horrelako jarduera bat ikastolen aldeko jai batean antolatzen dela.

Egunean zehar, ordu eta erdi inguruko iraupena izango duten bi hitzordu antolatu dituzte: 11:30etik 13:00etara bitartean, lehena; eta 15:30etik 17:00etara, bigarren saioa. Prado parkeko gunean egingo dituzte tailer horiek. Denera, zortzi urteko 40 neska-mutikok, 20 saio bakoitzean, larrialdi egoera baten aurrean eduki beharreko oinarritzko ezagutzak ikasteko aukera izango dute bertan.

Erreakzio bizkorra

OSI Arabako erizain eta *Ume sorosleak* programaren arduradun Beatriz Noarben eskutik, haurrek anbulantzia bati dei egin behar izanez gero edo bakarrik daudela mediku baten beharra duen egoera baten aurrean aurkituz gero, nola jokatu behar duten ikasiko dute zehazki. Noarben ustetan, funtsezkoa delako haurrek, txikitatik, erreakzio bizkor bati esker larrialdi egoera errealei aurre egiten jakitea.

Praktikoak izango dira saioak; etxeko txikiak parte aktibo izango dira, eta askotariko funtzioak ezagutzen joateko



Ikastetxean emandako saio bat. OSI ARABA

txandakako sistema erabiliko dute.

Horrelako ikastaro bat jaialdi batean antolatzen lehen aldia bada ere, dagoeneko hainbat ikastetxeetan eskaini izan da, eta ikasleen artean oso harrera ona izaten ari direla nabarmendu nahi izan du antolatzailerak.

Plaza kopurua mugatua denez, aurretiazko izen-ematea egin beharko da tailerrean parte hartu ahal izateko, arabaeuskaraz@armeniaikastola.eus helbide elektronikoa. ■■■

impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Email: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



"ALEAn nire harri-koskorra jartzen dut bertako musikaren alde"

IGOR MUÑOZ OÑEDERRA (GASTEIZ)
MUSIKA-KOLABORATZAILEA

Izan zaitez ALEAkide
www.alea.eus/harpidetzak

Musikaz idazten duzu ALEAn. Zergatik erabaki zenuen aldizkariari zure denbora eskaintzea? Musika nire pasioa da, eta, ALEAren bidez, bertako musikaren alde nire harri-koskorra jar dezaket. Zoragarria da hori.

Ezagunegiak ez diren taldeak aipatu ohi dituzue artikuluetan...

Hala da, bai! Askotan, oso pilatuta egoten da Gasteizko kultura-agenda, eta oharkabean pasatzen diren kontzertu eta ekimen interesgarri

asko daude. Ni harribitxi horien berri ematen saiatzen naiz.

Zergatik erakarri zintuen ALEAk?

Lehen, Arabako eskaldunok Euskal Herri mailako aldizkariak baino ez genituen. Orain, aldiz, gertuagoko kazetaritza eskalduna dugu ALEAren bitartez. Gainera, formatu berriarekin benetan erakargarria da aldizkaria.

Zer orrialdetik irekitzen duzu ALEA?

Ostiraletan, aldizkaria postontzitik hartu eta ALEAren konpainiaz bazkaltzen dut. Agenda begiratzen dut lehendabizi, asteburuari begira.

Petalo hexagonoa

EGILEA: SAN VIATOR IKASTETXEA - 5.B maila


Materiala

- Papera
- Artaziak
- Arkatza
- Erregela

Forma ezberdinekin jokatur, hexagono itxurako petaloz osatutako lorea sortuko dugu. Ondoren azaldutako pausuak jarraitzea besterik ez duzu!

Nola egin

1. Paperean hexagono bat marraztuko dugu arkatza eta erregela erabilia.
2. Gure hexagonoaren alde bakoitzean petaloak marraztuko dizkiogu, bakoitzari dagokion forma borobila emanez.
3. Kanpoko marra jarraituta, gure lorea moztu egingo dugu.
4. Hexagonoak utzitako marrak baliatuko ditugu, gure lorearen petalo bakoitza barrura begira tolesteko. Guztiak tolestu ondoren, gure hexagono itxurako lorea izango dugu!




1



2



3



4



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

ikasturte-amaiera

Bikaina



16Mpx+
5Mpx/25Mpx



FHD +
Super AMOLED



24Mpx+8Mpx
+2Mpx /32Mpx



6.21"



SAMSUNG GALAXY A40

10 €
/hil

HONOR 20 LITE

10 €
/hil

Kontratatu euskaltel.eus helbidean | Dendetan | 1717



euskaltel



Nekazari, langile, aberats

GURE BAZTERRAK



Armentia

Kuadrilla: Gasteiz.

Udalerrria: Gasteiz.

Biztanleak: 254 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Hamazortzi kilometro inguruko distantzia dago Gasteizko Armentia eta Trebiñuko Armentia herrien artean.

TESTUA: ESTITXU UGARTE LOPEZ DE
ARKAUTE ARGAZKIA: PHOT.OK

Gasteiztik hiru kilometrora dago Armentia, Donemiliaga Kukullako kartularioren arabera: *Armentei*. Kartulario berean, 1050. urteko dokumentu batean *Armentia* aipatzen da. Mende bereko dokumentuetan, berriz, *Armentehi* eta *Armentegui* izenekin jasotzen dute. Geroago, 1135eko eskuizkribu batean, jada Armentia jasotzen da, eta XIII. mendetik aurrera izen horri eutsiko dio herriak.

Astorga eta Bordele arteko bide erromatarren itzalpean herrixka bat sortu zuten bertan, eta ingurune hori izango da ere Arabako apezpikutzaren boteretsuaren egoitza, IX. mendetik XI. mendera

arte. Mendez mende iraun zuen herriak, eta XX. mendearen 50. hamarkadaren hasieran aldaketa



inportante bat jazo zen Armentian, garaiko hogeiz bizilagunen nekazaritza-herrian eraiki baitzuten auzo berri bat, hiriko lantegietera lanera joan zirenak jasotzeko. "Etxe hotzak" deitu zieten gasteiztarrek langileak jasotzeko Armentian eraiki zituzten etxe merkeei.

Martin Ballestero gobernadore zibil falangistak eta Eugenio Arraiza arkitekto karlistak sustatu zuten obra, eta frankismoak "bizitza eredu osasuntsua eta alaia" lortzeko proiektua bezala zabaldu zuen. Bigarren aldaketa garrantzitsua 1970. hamarkadan eman zen, txaletak eraikitzen hasi baitziren, eta 80. hamarkadan inguratu zuten antzinako herria Uleta gainetik.

M Mendinga
Optika

150 urte
zure ondoan

www.mendiaoptika.eus



Izan zaitez ALEAkide

Astero-astero Araban gertatzen denaren berri ematen du ALEA aldizkariak, eta alea.eus webguneak sarean. Komunikabide arabarra, hurbilekoa eta euskalduna. Zuk ere ALEAkide izan nahi al duzu?



Izan zaitez ALEAkide

ALEA aldizkaria ostiralero etxean jasotzeko, egin harpidedun urtean 55 euroren truke. ALEA erabiltzen eta zabaltzen zure harri-koskorra jarri nahi al duzu? Eman harpidetzaren berri, parte hartu zozketetan, elkarbanatu edukiak sarean, eman inguruan gertatzen denaren berri... Araban euskarazko kazetaritzaren alde... **jar ezazu zure alea!!**



KOIKILI ATERPETXEAN Familia egonaldia

Otxandion kokaturik dagoen Koikili Aterpetxean familia egonaldi bat zozkatzen du ALEAk, 4 pertsonarentzako logela batean, gosaria, afaria eta ekintza bat barne. Parte hartu zozketan, ekainaren 26a baino lehen! (*****OHARRA*****: Bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi). Hilaren 28an jakinaraziko ditugu irabazleak bai webgunean eta baita papereko edizioan ere.



Ekainaren 16an denak Gasteiza!

Amurrion ere euskaraz
bizitzeko gertu!!



PARTE HARTU

www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

ALEA aldizkariaren hiru harpidetzak:

Arantza Hidalgo.
Itziar Ortiz de Zarate.
Iurgi Mtz de Aramaiona.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean.

Urte oso baterako harpidetza, 55 euro.

Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

eta informazio gaurkotua izan nahi baduzu, sartu zaitetz alea.eus webgunera edota jarraitu gaitzazu sarean:

 [facebook/arabakoalea](https://www.facebook.com/arabakoalea)

 [@arabakoALEA](https://twitter.com/arabakoALEA)

 [@arabakoALEA](https://www.instagram.com/arabakoALEA)

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com



Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

LUYANDO OPTICOS

www.luyandoopticos.com

BEHERAPENAK

50% arte

Postas, 48
GASTEIZ

AGENDA

Ekainaren 14tik 20ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ 'Mende Berria Kantuz'

Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko, kontzertu berezia prestatu dute. Hainbat abesbatzekin.

Ostirala 14, 20:30ean, Principalen.

ANUNTZETA Olatz Salvador

Baserriko Uzta ekimeneko bigarren edizioaren barruan.

Larunbata 15, 12:00etan, Beltzitina baserrian.

DANTZA

GASTEIZ Dantza plazan

Udal Folklore Akademiarekin.

Ostirala 14, 20:00etan, Plaza Berrian.

BERTSOLARITZA

IZARRA Bertso poteoa

Zigor Enbeita, Agin Laburu eta Alaia Martinekin.

Ostirala 14, 20:00etan, frontoitik.

OION 'Altxa kopla hori' saioa

Paula Amilburu, Unai Bengoetxea, Xabi Igoa eta Felipe Zelaietarekin.

Ostirala 14, 20:30ean, plazan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Cosimoren katiuskak'

Liburuaren aurkezpena, Dani Martirena idazlearekin.

Larunbata 15, 12:00etan, Astrolibros liburudendan.



MAMIA

GASTEIZ Ogi dastaketa

Mamia okindegiaren eskutik, ogi eta goxo dastaketa, euskaraz; askotariko ogiak ezagutuko dituzte bisitaldian. Gainera, ogia nola egiten den ikusteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Aurretik izena eman behar da mamiagasteiz.com webgunean.

Larunbata 15, 11:30ean, Mamian.

IKUS ENTZUN

GASTEIZ 'Muga deitzen da pausoa' filma

Elbiria Zipitria andereñoari buruzko dokumentala aurkeztuko du Maider Oleaga zuzendariak.

Asteazkena 19, 19:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

MURGIA Garagardo dastaketa

Zuia Euskaraz ekimenean artean, garagardoa dastatzen ikasteko saioa egingo dute.

Ostirala 14, 20:00etan, udaletxe plazan.

GASTEIZ 'Paperbizi' eta 'Euskaldun-berriak?' proiektuak

Batera izeneko deialdian garaile izan diren bi proiektuak aurkeztuko dituzte egileek: Estibaliz Agirrek eta Kauldi Iriondok.

Osteguna 20, 20:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Jimmy jazz gasteiz

EKAINA

Lr. 15 GWENDAL

Lr. 15 DJ LORO

Ig. 16 BANDA CAFUNDÓ
(KONTZERTU ETA PERKUSIO TAILERA)
+ LEO EL CHARRÚA

Ot. 20 FLAMIN' GROOVIES

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**





Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX
EGIN!!



Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatzu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683




Servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Arabak,
arabako sagardoa!

ONline maileguak

**%4,99ko ITNean hasita
(%5,11 UTB)**

Ametsak mugikorrean
maileguak.
Kutxabank



*Online maileguetarako kanpainako eskaintza (online Bankan edo app mugikorrean kontratatuak). Adibideak:
- 15.000 euroko edo gehiagoko maileguetarako:
ITN: %4,99; UTB: %5,11. Irekiltze-komisioa: %0. Adibidea:
Zenbatekoa: 15.000 €; Epea: 84 hilabete; hileko kuotak:
211,94 €; azken kuota: 211,79 €;
guztira zordundutako diru-kopurua: 17.802,81 €.
- 5.000 euroko edo gehiagoko maileguetarako:
ITN: %5,99; UTB: %6,16. Irekiltze-komisioa: %0. Adibidea:
Zenbatekoa: 5.000 €; Epea: 48 hilabete; hileko kuotak:
117,40 €; azken kuota: 117,53 €; guztira zordundutako
diru-kopurua: 5.635,33 €.

Kontentsazioa dirua aurretik itzultzeagatik, amortizazio-data eta mugaegunaren arteko epea urtebete baino luzeagoa bada: Itzulitako maileguaren zenbatekoaren %1. Urte batekoa edo hortik beherakoa bada: %0,5. Ez da inoliz izango mugaeguneraino sortuko liratekeen interesak baino handiagoa.

Mailegua ematen duen finantza-erakundeak onartu eta aldeko azterketa egin behar du. Eskaintza hau kontsumora zuzenduta dago eta, beraz, kontsumorako ez diran sakaerak eta berfinantzaketak kanpoan geratzen dira. Ezin da beste sustapen batzuekin metatu. Kanpainaren azken eguna: 2019/08/31.

Espamiako Bankuak ikuskatutako erakundeak. Erakunde: Mailegu-emailea: Kutxabank SA; Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

AmetsONline
maileguak

kutxabank

ERRAZ
HURBIL
ORAIN